

IRAKASKUNTZA-GIDA

2017/18

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25799 - Euskal Pilotaren eta Tenisaren Oinarriak

ECTS kredituak: 9

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasgai honen xedea ikasleari Euskal Pilotaren eta Tenisaren inguruko ikuspegi orokorra eskaintzea izango da, betiere, kirol diziplina hauei aplikatutako oinarrizko prestakuntza zientifikoa eskuratzeko. Halaber, formazio aldiaren heziketa tresna moduan erabiltzeko oinarrizko zioak ezagutu eta aplikatzeko gaitasuna landu nahi da, joko-araudiaren arabera egitura ezagutuz, joko-ekintzaren ezaugarriak menperatuz eta hezkuntzan aplikatu ahal izateko baliabide didaktikoez baliatuz. Ikasleari eskatutako gaitasunak bi kiroletan aplikatuko dira, hastapenean dituzten erabilerak ahalbideratuko direlarik.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IKASGAIKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK

1. Aurkaridun kirolen egitura, arauak eta materialak ezagutu eta barneratu: Tenisa eta Euskal Pilota.

IKASKUNTZA EMAITZAK 1-Ikasleek euskal pilotako eta teniseko egituraren berdintasun eta ezberdintasun ezaugarriak identifikatu eta jakingo ditu, oinarrizko arauak eta pilota zein erremintak adin talde ezberdinen arabera ezberdinduz, kirol diziplina hauen oinarriak gizarteari helarazi eta kultur transmisioan laguntzeko.

2. Tenisa eta Euskal Pilota aurkaridun kiroletan ekiteko printzipioak eta ebazpen moduak barneratu.

IKASKUNTZA EMAITZAK 2- Ikasleek euskal pilotako eta teniseko joko ekintzaren alderdi nagusiak ezagutuko ditu, espezialitate eta adin talde ezberdinen arabera joko patroiak identifikatuko dituzte, erabiltzaile mota ezberdinei egokitutako espezialitateak proposatu eta berauen jokia garatzen laguntzeko.

3. Tenisa eta Euskal Pilota aurkaridun kiroletan ikaskuntza-progresioak diseinatu eta garatu, oinarrizko kompetentzia motorra barneratzeko prozesua aztertuz eta ulertuz.

IKASKUNTZA EMAITZAK 3-Ikasleek kirol diziplina hauek irakasteko baliabideak eskuratuko dituzte, irakaslearen parte hartzeari edo espazio-denboraren kudeaketari dagozkionak zein irakasteko metodologiaren barnean, ikasleen joko-ezaugarriak identifikatu eta helburuak eta edukiak edo ariketak diseinatu eta garatzeari dagozkionak. Modu honetan, gizarteko erabiltzaile ezberdinen beharren arabera plangintzak sustatu ahalko dituzte.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

1. G018 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) JFKZren esparruan aplikatzen jakitea. Gaitasun hau landu, ebaluatu eta kalifikatu egingo da.

IKASKUNTZA EMAITZAK 1-Ikasleek euskal pilotarekin edo tenisarekin zerikusia duten arloak jorrazteko blog hezigarri bat eta bideo hezigarri bat sortzen ikasiko dute, IKT ezberdinak talde lanean diseinatu eta sortuz, gizarteko erabiltzaile ezberdinei baliabide teknologiko hauen bidez dituzten beharrei erantzuteko.

2. G022 Printzipio etikoak jarduera profesionalean. Gaitasun hau landu eta ebaluatu egingo da.

IKASKUNTZA EMAITZAK 2-Ikasleek kirol hauen heziketa tresna moduan erabiltzen dituzten profesioetan kontuan izan beharreko alderdi etikoak ezagutuko dituzte, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan norberaren zein gainerakoen errespetua bilatzen duen gizartea eraikitzen laguntzeko.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Euskal Pilotaren eta Tenisa kirol diziplinak

- Euskal pilotaren eta tenisaren definizioa eta ezaugarriak
- Euskal pilotaren eta tenisaren barne eta kanpo logika: berdintasunak eta ezberdintasunak
- Euskal Pilotaren eta Tenisaren jatorria eta eboluzioa

2. Euskal Pilotaren beste egiturak: aukera aniztasuna

- Desafioa/akordioa: abantaila eta desabantailaren bidezko orekatzea
- Joko tradizionala: taldeak erabakitzen du
- Kooperazio jolasa: errepikapenaren gozamina
- Bestelako ekite esparruak: kirol egokitua, eskola kirola eta aisialdiko kirola

3. Teniseko eta Euskal Pilotako jokamolde ezberdinen joko-ekintza

- Joko ekintzaren zio nagusiak aurkaridun pilota kiroletan
- Tenisa bat baten aurka
- Tenisa bi biren aurka
- Eskuhuskako jokamoldeak
- Palako jokamoldeak
- Xisterako jokamoldeak
- Xarea jokamoldea

- Joko zuzenak
- Fronteniseko jokamoldeak

4. Euskal Pilotaren eta Tenisaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesua

- Irakaskuntza metodo ezberdinen azterketa
- Tenisean jokatzen ikasteko metodoa
- Euskal Pilotan ikasteko ikaskuntza-irakaskuntza prozesua: aldi bakoitzeko ezaugarriak, helburuak eta edukiak.
- Hezitzailearen parte hartzea euskal pilotaren eta tenisaren irakaskuntzan
- Espazioaren eta denboraren kudeaketa euskal pilotaren eta tenisaren irakaskuntzan
- Parte hartzaileen antolaketa euskal pilotaren eta tenisaren irakaskuntzan
- Erabakia hartzearen garrantzia euskal pilota eta teniseko ariketen diseinuan

5. Euskal Pilotaren eta Tenisaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren arabeko ikasleen joko-ebaluazioa

- Ebaluazio tresna ezberdinak eta beraien erabilera euskal pilotaren eta tenisaren irakaskuntzan
- Behaketaren erabilera joko-ebaluazioan
- Hasiberrien ebaluazioa euskal pilotaren eta tenisaren irakaskuntzan
- Aldi bakoitzeko partaideen joko-ebaluazioa euskal pilotaren eta tenisaren irakaskuntzan

METODOLOGIA

Eskola magistraletan Euskal Pilotaren eta Tenisaren egitura, ezaugarriak, definizioa, jatorria eta eboluzioaz gain, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren ezaugarri, helburu eta edukiak jorratuko dira. Euskal pilotako zatian irakasle eta ikasleen zein ikasleen arteko elkarrekintza sustatuko da, metodologia aktiboak erabiliz eta ikaskuntza kooperatiboaren bidez egingo da hain zuzen.

Gelako praktketan, Euskal Pilotaren atalari dagokionez, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko edukiak eta ebaluazioa jorratzeko jarduerak, jolas kooperatiboa, joko tradizionala eta desafioari dagozkion jarduerak landuko dira. Kasu honetan ere, metodologia aktiboak erabiliz eta ikaskuntza kooperatiboaren bidez gauzatuko da. Tenisean ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko eta joko-ekintzako edukiak landuko dira.

Landa praktketan, Euskal Pilotaren atalari dagokionez, espezialitate ezberdinetako joko-ekintza ezagutu eta praktikan jartzera bideratutako jarduerak burutuko dira. Kasu honetan ere, metodologia aktiboak erabiliz eta ikaskuntza kooperatiboaren bidez gauzatuko da. Tenisean ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko eta joko-ekintzako edukiak landuko dira.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30		40						20
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	45		60						30

Legenda: M: Maistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Banakako lanak % 40
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 60

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Euskal Pilotaren atalak notaren %50eko balioa izango du eta Tenisaren atalak beste %50a. Ikasgaiaren amaierako nota eskuratzeko bi atalak gainditu beharko dira.

Euskal Pilotan eskoletara etortzen direnen kasuan etengabeko ebaluazioa egiteko aukera izango da. Aukera hau hautatzen dutenek irakaslearekin lortu nahi duten nota zehazteko kontratua sinatu ahal izango du. Kontratu hori lehenengo 4 asteetan negoziatuko da eta ikaslearen zein irakaslearen betebeharrak zehaztuko dira bertan. Laugarren astean kontratua sinatuko dute bi aldeek. Nota bakoitzak eskakizun ezberdina izango du probei dagokionez, hau da, nota bakoitzeko hainbat irizpide adostuko dira eta horiek bete beharko dituzte ikasgaiaren zehar. Probak ondorengoak izango dira: a) Bakarkako hiru proba (ikaskuntza-irakaskuntza prozesua, euskal pilotaren berdintasun eta ezberdintasunak zein espezialitateak eta lau taldelaren inguruko iruzkinak), garatu beharreko idatzizko proben bidez, eta b) taldekako beste hiru proba (ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko ebaluazio-ariketak, desafioa eta galdera bat erantzuteko blog baten

diseinua eta garapena), praktikak eginez edo teknologia berriak erabiliz, burutu beharko dira. Bikain atera nahi izanez gero, bakarkako beste proba bat gauzatu beharko da (proiektu baten garapenean parte hartuz eta ikasgaiaren balorazio kritikoa entregatuz). Proba hauek eskoletan zein eskolaz kanpo gauzatuko dira, lehenengoak saio magistraletan zein eskolaz kanpo eta bigarrenak, gelako praktiketan zein eskolaz kanpo. Amaierako nota eskuratzeko atal eta proba bakoitza gainditu beharko da. Probaren bat gainditu ezean, beste aukera bat eskainiko da ohiko deialdia baino lehen (eta bestela, ohiko deialdian zati hori errekueratu beharko da). Lehenengo bakarkako Probak %10eko balioa izango du, bigarrenak, %30ekoa eta hirugarrenak, gai edo ez gai; lehenengo taldekako probak %10eko balioa izango du, bigarren taldekako probak gai edo ez gai eta hirugarrenak, %50ekoa. Azken proba honetan "Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) JFKZren esparruan aplikatzen jakitea" zeharkako gaitasuna (auto)ebalatu eta (auto)kalifikatuko da (%10), hau da, ikasleak bere buruari jarriko dio kalifikazioa.

Eskoletara etortzen ez direnek, hau da, ebaluazio jarraitua egingo ez dutenek, amaierako azterketa batean gauzatu beharko dituzte aurrez deskribatutako sei proba ezberdinak. Kasu honetan, ikasgaiko eduki guztiak garatu beharreko idatzizko azterketa baten bidez ebaluatuko dira, ohiko deialdian zein ezohiko deialdian.

Tenisaren kasuan bi proba burutu beharko dira, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko saio batzuk sortu eta DVD batean entregatu (notaren %30a) eta garatu beharreko idatzizko amaierako azterketa (notaren %70a). Kasu honetan ere, bi zatiak gainditu beharko dira atal honen amaierako nota eskuratzeko.

Ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontaktzen hasita.

Deialdiari uko egiteari dagokionez, kontuan izan ondorengoa:

- 1.– Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.
- 2.– Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.
- 3.– Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

-Etengabeko ebaluazioan proba bat gainditu ez dutenek, ohiko deialdia baino lehen aukera bat izango dute proba hori gainditzeko. Era berean, ohiko deialdian izango dute bigarren aukera berau gainditzeko. Bigarren aukera honetan gainditu ezean, gainditutako proben kalifikazioak gordeko zaizkie eta ezohiko deialdian egin beharko dituzte berriro gainditu gabeko probak.

- Azken ebaluazioaren sistema hautatu dutenek, ohiko deialdian ez badituzte ebaluatzeko probak gainditzeko ezohikoan errepikatu beharko dituzte. Hori bai, ezohiko deialdian, azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Euskal Pilotaren zatian hainbat material erabiltzea gomendatzen da. Besteak beste, material hau eGela plataforma birtualean eta ikasleek taldean sortu beharreko edublogaren ezaugarriak eta ebaluazio irizpideak agertzen diren irakasleak sortutako edublogean aurki daiteke.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Alessandrini, E. y Garez, C. (1989). Exercices de tennis. Initiation, perfectionnement et entraînement. París: Amphora.
- Aparicio, J. A. (1998). La preparación física en el tenis. Madrid: Gymnos.
- Applewhaite, C. y Moss, B. (1988). Tenis completo. Barcelona: Hispano Europea.
- Arratibel, F. y S.D. Behar-Zana (1998): Pilotarien historia Billabonan. Donostia: Kutxa Fundazioa.
- Association Enseignants E.P.S (1991). Tennis: La formation du joueur. París: Edition Association EPS.
- Ayarra, R., Usabiaga, O. y Yanci, J. (2015). Technical and tactical action analysis of elite "paleta cuero" players in the World Cup. AGON International Journal Of Sport Sciences, 5(1), 15-26.
- Bombín, L. y Bozas-Urrutia, R. (1976). El gran libro de la pelota. Madrid: FIPV.
- Egibar, M., Etxeberria, J. C., Gutierrez, I., Mendizabal, Maider, Usabiaga, O eta Zubiaur, H. (2007). Eskupilotako ikaskuntza-irakaskuntza prozesua. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Etxeberria, J. M. et al. (1991). Pelota. Barcelona: COE.
- Etxebeste Otegi, J., Oiarzabal, I. y Martínez de Santos, R. (1994). La utilización de los espacios en los juegos directos a lo largo. Kirola Ikertuz, 7: 35-39. Vitoria-Gasteiz.
- Euskadiko Euskal Pilotako Federazioa (2006). Pelota: reglas de juego. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco.
- Federación Alemana de Tenis (1979). El Tenis ¿Volúmenes 1-5. Escuela de campeones. Barcelona: Hispano Europea.
- Fernandez-Lasa, Uxue, Usabiaga, O. eta Castellano, J. (2014). Emakume pilotariak: gure taldea, gure ordua. Uztaro, 93(2), 5-16.

- Fernandez-Lasa, Uxue, Usabiaga, O., Martos, D., eta Castellano, J. (2015). Creating and maintaining social networks: women's participation in Basque pilota. *International Journal of Sport Science*, 40(2), 129-144.
- Fréry, J. C. (1997). *Le jeu de tennis. Enseignement des préparations physique et mentales, de la balistique et de la technique, la tactique e la stratégie*. Chiron: France.
- Gallaga, I. eta Etxegia, M. (2005). *Esku Pilotaren eskola entrenamendua*. Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia.
- Gonzalez Abrisketa, Olatz (2005). *Pelota Vasca. Un ritual, una estética*. Bilbao: Mueble de Uribitarte.
- Martos, D., eta Usabiaga, O. (2014). Los juegos directos de pelota vascos y valencianos y el proceso de conversión en deporte. Una aproximación cualitativa. *Recorde: Revista de História do Esporte*, 7(2), 1-32.
- Mourey, A. (1986). *Tennis et pédagogie*. París: Vigot.
- Mujika, A. (1994): *Euskal Pilotaren ikas-irakats prozesua*. Donostia: Euskadiko Euskal Pilota Federazioa.
- Pascual, M.J. (1991). *Historia de las reglas del tenis*. Madrid: Gymnos.
- Rieu, C., Marchon, J.C. (1986). *Mini Tennis, Tennis, Maxi Tennis*. Vigot: París.
- Sanz Rivas, D. (2004). *El tenis en la escuela*. Barcelona: Paidotribo.
- Usabiaga, O. (2006). *Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa: errendimendua eta sustapena uztartzen dituen erredua*. *Ikastaria*, 15, 143-151.
- Usabiaga, O. eta Martos, D. (2012). La tradición lúdica en el currículum educativo. Los juegos y deportes de pelota en Educación Física: una propuesta comprensiva. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 107(1), 31-40.
- Usabiaga, O. (2014). Pelota vasca y globalización. *Journal of Research Institute. Kobe City University of Foreign Studies*, 52, 117-131.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Douglas, P. (1982). *Manual de tenis*. Madrid: H. Blume.
- Federación Española de Tenis (1991). *Reglamento Técnico. Árbitro Nacional de Tenis*. Madrid: Escuela Nacional de Maestría de Tenis.
- Fréry, J. C. (1997). *Le jeu de tennis. Enseignement des préparations physique et mentales, de la balistique et de la technique, la tactique e la stratégie*. Chiron: France.
- Gillmeister, H. (1998). *Tennis. A Cultural History*. Londres: Leicester University Press.
- Groppe, J. L. (1993). *Tenis para jugadores avanzados*. Madrid: Gymnos.
- Schönborn, R. (1983). *Pratique du tennis*. París: Vigot.
- Usabiaga, O., eta Castellano, J. (2014a). Uso estratégico del espacio en categorías de formación de pelota vasca. *Revista Internacional de Ciencias del Deporte*, 36, 109-122.
- Usabiaga, O., eta Castellano, J. (2014b). Efecto del cambio de reglas en pelota vasca de formación. *Cultura, Ciencia y Deporte*, 9(27), 243-253.
- Usabiaga, O., Martos, D. eta Fernandez-Lasa, Uxue (2014). Los juegos de pelota a mano vascos y valencianos en edad escolar. Una comparativa de la lógica interna y externa. *Acción Motriz*, 12(1), 5-16.
- Usabiaga, O., Martos-García, D. eta Peris-Valencia, A. (2014). Propuesta de innovación educativa para el futuro profesorado de educación física a través de una blogosfera. *Revista Española de Educación Física y Deportes*, 406(3), 85-92.
- Usabiaga, O., Castellano, J. y Anguera, M. T. (2016). Uso del espacio en pelota vasca en edad escolar: aplicación del análisis secuencial. *Cuadernos de Psicología del Deporte*, 16(1), 103-112.

Aldizkariak

- Tennis a Fondo
- Grand Slam Tennis
- Révue E.P.S.
- Tennis Magazine
- Apunts. Educación Física y Deportes.
- Cultura, Ciencia y Deporte.
- Revista Internacional de Ciencias del Deporte.
- Acción Motriz
- Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y del Deporte
- Uztaro
- Revista de Psicología del Deporte
- Cuadernos de Psicología del Deporte
- Journal of Sports Science and Medicine
- Journal of Sports Sciences
- Coaching and Sports Science Review
- Journal of Strength & Conditioning Research
- Psicothema
- International Journal of Performance Analysis in Sport
- International Journal of Sports Science and Engineering
- Ricyde

Interneteko helbide interesgarriak

- <http://www.itftennis.com/coaching/sportsscience/>

- <http://www.tennisplayandstay.com/mini-tennis/index.html>
- <http://consumers.quickstarttennis.com/index.php?page=videos>
- <http://www.operationdoubles.com/>
- http://www.thetennischannel.com/video/video_archive.aspx
- <http://www.cardiotennis.com/curriculum.cfm>
- <http://www.revolutionarytennis.com/>
- <http://www.lawebdeltenis.net/>
- <http://www.educatennis.com/>
- <http://www.arabaherrikirolak.org>
- <http://www.euskalpilota.com>
- <http://www.guipuzkoakoeuskalpilota.com>
- <http://www.kirolzerbitzua.net/webpelota>
- <http://www.pilotaraba.com>

OHARRAK